

BIGARREN EKITALDIA

BIGARREN HITZALDIA

LÍNEAS DE TRABAJO EN LAS DISTINTAS ÁREAS DE CONOCIMIENTO Y SU VINCULACIÓN CON LA ESTRUCTURA SOCIOECONÓMICA VASCA

EHU-n LAN ZIENTZIEKAKO LIZENTZIATURA EZARTZEKO EZTABAIDARAKO OHARRAK, LAN ZUZENBIDE ETA GIZARTE SEGURANTZAREN IKUSPUNTUTIK

KOLDO IRURZUN UGALDE

Enpresa Zuzenbideko Leioako Campuseko Koordinatzailea. UPV/EHU

Lehenengo hurbilketa honetan hausnarketa prozesuak jarraitu beharko lituzkeen hildoak (1) eta ezagutza arlo honetatik luzatutako proposamen batzuk (2) zehaztuko ditugu.

(1) Lehenik eta behin, lizentziaturaren bidez “lana” giza fenomenoak sakonago aztertzeak aukera dugunez, perfil akademikoak gizariek eskatzen dituen adituez hornitzeko baliagarria izan behar du. Hau da, biziki azpimarratu nahi dugu perfil akademiko eta lan merkatuen (tradizional nahiz sorrera berriko) arteko lotura. Azken finean eztabaidaren ardatz nagusietako bat, perfil akademiko eta beharkizun produktiboen harremana behar du izan, nondik lizentziaturaren izaera praktikoa ondorioztatzen dugun, noski edukin hezitzaileak ahaztu gabe, baina gizariek eta errealitate produktiboarekiko harremana azpimarratuz. Bestalde, laneko zientzien lizentziaturaren baliokideren ezean eta beronen arautze E.D.an marraztutako muga zabalak direla eta, “lana” ikerketa objektura modu berri batean, modu integratuz, hurbiltzeko aukera daukagu. Honela aztergaira, ezagutza arlo bakoitzetik, loturarik gabeko hurbilketa egin beharrean, abiapuntuan gauden honetan, disziplinarretako ikuspuntu batetik, amankomunean hurbiltzeko bideari buruz hausnarketa egin behar dugu. E.D. berak planteamendu hau barneratzen du, hainbat edukin tronkal ezagutza arlo bat baino gehiagorekin uztartzean.

(2) Abiapuntu orokor horietatik hasita eta gune zehatzagotara ailegatuz, lehen hurbilketa batetan hauek dira gure jakintza arlotik jorratu beharreko gaiak.

- a) Lan osasuna. Gizarteak eta araudiak arlo honetako profesional gaituak eskatzen dituzte, ate interesgarri bat zabaltzen delarik lan merkatuan. Arlo honetan bai diplomatura eta bai lizentziatura berria erreferente izan behar dute prestakuntzari (maila desberdinetan, oinarrizko, erdimailako eta goi mailako) dagokionean. Oinarrizko eta erdimailan daukagun esperientziarekin eta unibertsitateko lehen eta bigarren zikloetan titulazio espezifikorik ez dela eskeintzen kontuan izanik, lizentziaturak berarizko lekua izango luke lan arriskuen aurrearretako goi-mailako titulazioa eskeintzeko. Zentzu honetan E.D.an bertan lan osasuna eta laneko zientziak uztartzen dira eta tronkalitatean isladatzen da. Gure ustez, irakasgai tronkalen eta derrigorrezkoen artean goi-mailako titulua lortzeko (300 ordu) adina kreditu osatu beharko genituzke, beti ere diplomaturako lan osasuneko kredituekin erdimailako titulua lortu eta gero. Ondorioztatu daitekeenez lizentziaturak ekarpen garrantzitsu bat gehitzen dio dagoeneko diplomatura egin duenari.
- b) Azken urteotan negoziazio kolektiboa eraldatu izanak, bai arau publikoek atzera egin dutelako laneko edukinak arautzerakoan gizarte eragileen mesedetan, bai laneko gatazkak autosatzeko joera nabariagatik, juristentzat errealitate berria eta lan zuzenbideko iturrien arteko harremanak ezagutzeko beharkizuna ekarri du. Aurrekin horiekin, oinarrizko arau eta hitzartutako arau ez osatutako iturri sistema berriarekin lana egiteko profesionalak behar ditugu. Orain artekoan legezko oinarrizko araudia ezagutzearekin nahikoa bazen, aurrerantzean hitzarmenen ezagutzea eta negoziazio kolektibo geroz eta dinamiko eta aberatza goaren ezagutzea nahitaezkoa izango da. Are gehiago, autonomia kolektiboak bultzatutako gatazkak autoarautzeko tresnak zehazki ezagutzea. Eta guzti hau, aldi berean beste jakintza batzuetako tresnak lagungarri dituelarik, negoziatzerakoan edo gatazkak ebazterakoan beste ezagutzak izatea beharrezkoa izango baita, adibidez bitartekaritza edo negoziaketa teknikak garatzea. Esaten genuen bezala, disziplinarako ikuspuntua baita titulazio honen ekarpenik nagusia. Guzti honekin, ezin daiteke baztertu, Bitartekaritzan Experto titulua edo antzekorik garatzea. E.D.an Negoziazio teoria eta teknikak atalarekin bat etorriko litzateke.
- c) Bestalde gure lurraldearen lan-harremanetako dinamika aberatsa dela eta, bertako erakundeek (nahiz eta mugapen konpentzial handiak ezartzen dituen Konstituzioak) eta autonomia kolektiboak lan araudi autonomo berarizkoa, ezaugarri propioekin, sorrerazi dute, bere ezagutza bateratua ezinbesteko bihurtzen delarik lan zuzenbideko edozein jakitunentzat. Ikuspuntu honetatik Euskal Gizarte Zuzenbide edo Lan Harremanetako Euskal Hesparrua ikasketak garatzea gomendatzen dugu, LHK, KES, etab. Bezalako erakunde eta prozedurak aztergai izango liratekeelarik.

- d) Batetik hurbileneko hesparruetaz ari bagara ere, ukaezina da estatuzgaindiko beste batzuk geroz eta eragin handiagoa dutela gure lan harremanengan, eta bereziki Europar Batasuna da horren adibide. Tamalez aukera askeko asignaturen bidez baino ezin izan da sakondu honako gai honetan. Eta bere garrantzia geroz eta erabakiorragoa da gizarte segurantzaz, lan osasuna, enpleguan, etab. Hori dela eta, Europar Batasuneko Gizarte Zuzenbideari begirune berezia zor beharko lioke lizentziatura berriak. Era berean beste nazioarteko hainbat erakunde klasikok (LNE adibidez) edo garapenerako programen bidez gizarte eragileek bultzatutako inizatiben bidez globalizazioaren ondorioak orekatzeko hainbat dinamika bultzatzen dira oinarritzko lan baldintzak nazioarte mailan lortzeko. Horregatik nazioarteko lan zuzenbidean prestakuntza zabaltearen premia.
- e) Bestalde lizentziaturaren perfil profesionalen artean Lan Ikuskariak prestatzekoa egongo litzateke, gaurregun bitartean beste lizentziatu mota batzuk bete dutena, baina laneko zientzian lizentziatuek inork baino hobeto beteko lutekeena.
- f) Gizarte Segurantzaren gestio informatikoak ate berriak zabaltzen ditu teknologia berrien eskutik. Gizarte Segurantzazko prozedura informatiko berriak antolatzen ari da bere gestiorako, etorkizunean errota eta zabalduko direnak dudarik gabe. Gaurregun gure ikasleen prestakuntzan aukera askeko asignaturetara mugatzen bagara ere teknika berri hauetan, aurrerantzean derrigorrezko bihurtzea eskatuko digu merkatuak, eta lizentziatura berria aukera paregabea da aurrerapauso hori emateko.
- g) Baita ere Gizarte Segurantzazko arloan sakondu beharreko beste atal bat gizarte babes osagarria da. Hau batzutan sistema publikoarekin uztartuko da (hitzarmen bereziak, eraentza bereziak, etab.) baina bestetan autonomia kolektiboaren bidez (EPSVak adibidez).
- h) Lan Zientzietan lizentziatuak enpleguaren mailan beste lan hildo aurki dezake. Honela, enplegu politikak, kontratatze laguntzak, orientabide sozioralabiala, laneko inserzioa etab. Irtenbide profesional guzti hauekin erlazioaturiko enplegu, gestio tresnak eta teknikak ezagutzea derrigorrezkoa bihurtuko da.
- i) Administrazio Publikoaren pertsonal laboralaren arazoa ere hor dago, profesional prestuen zai, orain artean ez baita egon inongo trataera bateraturik horren inguruan.
- j) Azkenik eremu zabal eta malgu bat utzi daiteke lan harremanen aldaketekin eta egungotasunarekin lotua, bertan hainbat aktualitateko arazo jorratu ahal izateko, adibidez, telelana, merkatu berriak (kirolaren merkatua, esate baterako), edo zuzenbide konparatua.